

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Bizitzaren kolorea

HILENA ETA GUZTIONA, loretik erruz eman du aurtien ere ilenak, *Calendula officinalis*, eta sorgin eta aztien mandio eta bordatxoetako lehortegiak, moztu eta hildako loreez mukuru daude. Azalera-ko ukendugintzan aritzen diren belagile guztiei antzeman izan diet ilenarekiko adiskidetasun berezia. Isuri mediterranearean batez ere, atlantiarrean intsusa mitikoa (*Sambucus nigra*) edo pasmo-belar ahalguztidunarekikoa (*Anagallis arvensis*) adinakoa behinik bai.

Azaleko eta barrunbeetako azalak babesteko osagai indartsuak ditu lore honek. Adibidez, Alemaniako osasun arduradunek eztarriko hanturak eta minak osatzeko sendagaitzat onartua dute. Sendabide traketsa duten oinetako onddoen gaitzari aurre egiteko ere fungizida ona da. Erredurak, intsektuen koskadizoak eta azaleko arazoetarako sukalde ugaritan egiten diren ukenduetako formuletan topatuko duzu. Sukaldeetan, lore dotoreok, ukenduetarako ez ezik, jakiei kolorea emateko ere erabiltzen dira, behartsuaren azafrakia ere deitzen zaio. Gurinak iluntzeko ere usu erabili da.

Bizitzari ere kolorea ematen dio ilenak. Nicholas Culpeper (1660-1738) botanikari ingelesak bihotza indartzeko gomendatzen du eta honela dio: "Haren loreei begiratu, besterik gabe zure ikusmena hobetuko da eta zorion betean izango zara".

Udaberriaren amaian piztuko diren suen iragarle, baratza bazterretan ohikoa da sasoi berri osoa ilenaren laranja-koloreko multzoak ikustea. Lurralde beroetan ia urte osoan. Lore batzuk ernaltu eta petalo biziak ihartuta fruitua ematera jarri ahala,



Calendula officinalis.

beste batzuk irekiko dira, etenik gabe. Loratze horretatik jarri zitzaion *Calendula* izena, latineko *calendae*-tik, hau da, ilargiaren zikloan oinarritutako egutegiaren hilabeteetako lehen egunetik. Hilabete-tako loraldia, alegia. Latinak etrurieratik hartutakoa duela diote batzuek, beste batzuek, berriz, "izendatu" adierazten duen *calare* hitzetik edo honetatik eratorritako *calenda* duela iturri diote. *Helianthus annuus*, ekilorearenaren antzera, eguzkiari jarraitzen dion lorea dela eta, *solsequium* ere deitu izan zaio.

Guk bezain beste maite du ilena zorriak. Honek ere osasuna zaintzeko zurrupatu nahiko du ilenaren izerdia. Baratza txokoko ilen-saila, beraz, zorrien erasoaldiaren lehen zantzuaz jabetzeko, alarma seinaleztat baliatu dezakegu.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Bolaleku S.A.T.
Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongarri organikoa

LORE•LURRA
Sukalde ongarritasun

Lur begetal ongarritua, ereindakoa, estaltzekoa,
Idor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia

Urtinea
landare mintegia

Etxeko ekoizpena

Mota guztietako lore eta
landareak salgai

Urtinea baserria,
San Esteban auzoa
20170 Usurbil

Tel: 943 36 22 55
urtinea@euskalnet.net